Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

6782

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 14koa, Toki Araubidearen zuzendariarena, Arrazua-Ubarrundiako udalerriaren armarria onartzen duena.

Arrazua-Ubarrundiako Udalak, 2006ko irailaren 14an eginiko Osoko Bilkuran, udalerriaren armarria hartzeko espedientea hastea erabaki zuen. Erabakia aginduzko txostenen eraginpean ipini ondoren (hau da Toki-erakundeek ikur bereizgarriak hartzeko edo aldatzeko prozedura onartzeko den abenduaren 1eko 364/1987 Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako txostenak), Eusko Ikaskuntzak nahiz Foru Aldundiak aldeko txostena eman dute inolako oharrik egin gabe. Arrazua-Ubarrundiako Udalak, 2008ko azaroaren 3an izandako osoko bilkuran, udalerriaren armarria onartzea erabaki du, baita espedientea Toki Araubidearen Zuzendaritza honetara bidaltzea ere, behin betiko onartua izan dadin.

Azaldutakoa oinarritzat harturik, Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.b) artikuluari jarraituz, Lehendakariordetzaren egitura organikoa onartzen duen lehendakariaren otsailaren 28ko 2/2006 Dekretuaren 14.d) artikuluaren arabera eta lehenago aipatutako 364/1987 Dekretuarekin eta bat datozen gainontzeko xedapen guztiekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Arrazua-Ubarrundiako udalerriaren armarria behin betiko onartzea, eginiko proposamenarekin bat etorriz eta ondorengo deskribapen honekin:

«Triangelutan banatutako armarria.

1 eta 3 – urdinak, urrezko ereinotz adar batekin zatiki bakoitzean.

2 – berdea, ezkerrera begira dagoen lehoi batekin, mihia aterata, eserita eta zilarrezko bi ohol eusten dagoena».

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa ipini ahal zaio Araubide Juridikoaren idazkari nagusiari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluekin bat etorriz, errekurtsoa aurkezteko xedez zuzenbidean onartutako edozein bideri uko egin barik.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 14a.

Toki Araubidearen zuzendaria,
JOSÉ M.ª ENDEMAÑO ARÓSTEGUI.

Otras Disposiciones

VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

6782

RESOLUCIÓN de 14 de noviembre de 2008, del Director de Régimen Local, por la que se aprueba el escudo del municipio de Arrazua-Ubarrundia.

El Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia acordó iniciar expediente para la adopción del escudo heráldico del municipio en Pleno celebrado el 14 de septiembre de 2006. Sometido el Acuerdo a los informes preceptivos previstos en el artículo 3 del Decreto 364/1987, de 1 de diciembre, por el que se aprueba el procedimiento para la adopción o modificación de signos distintivos de los entes locales, tanto la Sociedad de Estudios Vascos / Eusko Ikaskuntza como la Diputación Foral de Álava lo han informado favorablemente, sin formular observación alguna. El Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia, en sesión plenaria celebrada el 3 de noviembre de 2008, ha acordado aprobar el escudo del municipio y remitir el expediente a esta Dirección de Régimen Local para su aprobación definitiva.

En base a lo expuesto, de acuerdo con el artículo 22.2.b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local; artículo 14.d) del Decreto 2/2006, de 28 de febrero, del Lehendakari, por el que se aprueba la estructura orgánica de la Vicepresidencia del Gobierno; Decreto 364/1987, anteriormente citado, y demás disposiciones concordantes,

RESUELVO:

Artículo único.– Aprobar definitivamente el escudo heráldico del municipio de Arrazua-Ubarrundia de acuerdo con la propuesta formulada y cuya descripción es la siguiente:

«Escudo calzado.

1 y 3 – de azur, con una rama de laurel de oro en cada partición.

2 – de sinople, un león contornado, linguado, sentado, soportando dos tablas de plata».

DISPOSICIÓN FINAL

Contra esta Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Secretario General de Régimen Jurídico, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de esta resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la utilización de cualquier medio de impugnación admitido en derecho.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de noviembre de 2008.

El Director de Régimen Local,
JOSÉ M.ª ENDEMAÑO ARÓSTEGUI.